

# 56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

## **Isabel Herguera zinegilea da 56. Jazzaldiko kartelaren egilea**

Donostiako 56. Jazzaldiak, uztailaren 21etik 25era izango denak, badu kartela. Egilea Isabel Herguera da, animaziogile, zuzendari eta produktorea.

Izenburua da *"Bye Bye Blues"*. Artistak berak adierazi duenez: *"Kartela pasa berri dugun urte arraro eta mingarriari agur esateko egina da. Aldi berean, Jazzaren historiaren parte izan ziren emakumeei eta orain direnei eskainitako omenaldia da"*.

*Bye Bye Blues* bada, gainera, herri-musikaren eta Jazzaren estandar bat ere. 1925ean Fred Hamm, Dave Bennett, Bert Lown eta Chauncey Gray-k konposatu bazuten ere, abestia Les Paul eta Mary Ford-en bertsioan igo zen zerrendetan gora 1952an. Urtetan zehar asko izan dira interpretatu duten artistak, baina Isabel Herguerak bi bertsio hauek hartu ditu erreferentzia gisa: Julie London-ena (1957) eta Cab Calloway-ren instrumentala (1940).

### **Isabel Herguera:**

Donostian jaioa da, 1961ean. Ikasketak Bilboko Arte Ederretako Fakultatean eta Dusseldorfeko Kunstakademie-n egin zituen, eta prestakuntza osatzeko Kaliforniako Institute of the Arts institutuan izan zen. Hamarkada batez Los Angeleseko animazio-estudio

# 56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

batzuetan aritu zen lanean. 2003an Europara itzuli eta zenbait film labur egin zuen, besteak beste, Annecy, Rotterdam eta Ann Arbor-eko jaialdietan hautatuak.

Hainbat ikastaro eta tailer eman izan du, eta ematen ditu: California Institute of the Arts, Los Angeles; Kubako San Antonio de los Baños Nazioarteko Zinema eta Telebista Eskola; Central Academy of Fine Arts, Pekin. Irakasle gonbidatua izan zen Indiako National Institute of Design, Ahmedabad-en. Artelekuko Mugimenduzko Irudien Laborategia ere, berak diseinatu eta koordinatu zuen.

Herguerak ospea eta sariak jaso izan ditu bere animazio-lanengatik; horien artean aipa ditzakegu *La Gallina Ciega* (Animaziozko Film Labur Onenaren Goya Saria 2006), *Bajo la Almohada* (Unicef saria, Zinebi 2012) eta *Amore d'inverno* (Euskal Zinemaren Sari Nagusia 2015).

2003tik 2011ra Kataluniako Animazio Zinearen Nazioarteko Erakustaldia zuzendu zuen, Lleidan; sariketa horrek Consell Nacional de la Cultura i de les Arts erakundearen Ikus-entzunezkoen Sari Nazionala jaso zen 2009an.

Gaur egun, Koloniako Kunsthochschule fur Medien-en eskolak ematen ditu, eta aldi berean ari da produzitzen bere lehen film luzea, *El sueño de la sultana*.

## JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 [prensajazz@donostia.eus](mailto:prensajazz@donostia.eus)

[www.jazzaldia.eus](http://www.jazzaldia.eus)